

Kaixo.

Baserritarrek sortzen duzuen plastikoa biltzeko puntuen kudeaketaren inguruan ematen diren arazoak direla eta Tolomenditik plastikoa biltzeko modua aldatzeko erabakia hartu da.

Hemendik aurrera plastikoa jaso ahal izateko baserritarroi zaku handi batzuk banatuko zaizkizue eta hauetan joan beharko duzue plastikoa biltzen.

Gogoratu behar dizuegu beste behin, sokak eta plastikoak ez direla batera jaso behar edo ez direla zaku berean sartu behar, plastiko mota desberdina denez, bereizita jaso behar baita.

Plastikoa jasotzeko kamioia etxera edo baserritarrarekin adostutako lekuan izango da, bakoitzak sortzen duzuen plastiko kopuruaren arabera, bakoitzarekin adostuko da, urtean behin, bi edo hirutan egitea bilketa.

Zaku bakoitzari zenbaki bat jarriko zaio eta baserritarrari albaran bat entregatuko zaio, modu horretan zakuen edukiaren kontrola modu zehatzean egin ahal izango dugu.

Zerbitzua jaso ahal izateko eta horretarako zakuak banatu ahal izateko, ahalik eta azkarren Tolomendirekin harremanetan jartzeko eskatzen dizuegu, 943655097 telefonora deituz edo tolomendi@tolomendi.eus helbide elektronikora idatziz.

Agur bat.

Tolosan 2018ko maiatzaren 29an.

Tolomendi